

eskolak euskaldundu behar du

EUSKARAREN EZAGUTZAREN BERMERAKO PROPOSAMENA

ATARIKOA

Gure ustez, aurrera urratsa egiteko garaia iritsi da. Izan ere, hizkuntza ereduen egiturak, "hizkuntza askatasuna"ren aitzakian, oro har, hezkuntza zatikatzeaz gain irakasle eta ikasleen arteko bereizketa antzuak baitakartzatza, zaildu egiten baitu berrikuntzen hedapena eta, azken buru, berariazko ereduaren sorrera eta garapena eragozten baitu. Auzia ez da hizkuntza eredu jakina bestearen aurretik hobestea. Erabaki beharrekoa da Euskal Herriko hezkuntzaren egituraketa eta garapenerako hizkuntza ereduen proposamena egokia ote den eta bere orde, zein proposamen izan ote daitekeen.

Horra hor 1999ko udaberrian GUNEAK antolaturiko jardunaldietan plazaratutako gogoetako bat¹. Bost urte igaro dira orduz geroztik, eta duela 20 urte ezarri zen hizkuntza ereduen politika berrikusteko beharra areago eta nabarmenagoa dela baieztatu dezakegu. Izan ere, asko dira bost urte hauetan zehar hizkuntza ereduen politikaren agorpena baieztatu eta hizkuntza politika berri baten beharra planteatu duten eragileak eta ekimenak. Soilik garrantzitsuenak iruditzen zaizkigunak aipatzearen:

- GUNEAK derrigorrezko hezkuntza amaitzerakoan euskararen ezagutza bermatzeko beharra azpimarratu zuen, 1999. urtean zehar euskararen gainean egindako hausnarketen ondorioetan.
- Euskararen Gizarte Erakundeak KONTSEILUAK 2.001. urtean eginiko Plan Estrategikoan, Hezkuntza ez-unibertsitarioko txostenean, honako ildo estrategiko hau finkatu zen:
Ikasle bakoitzaren hizkuntza abiapuntuari egokitutako murgiltze ereduak definitu, DBH amaitzean ikaslearen gaitasuna bermatua izan dadin.
Eta ildo estrategiko hori garatzeko, honako ekintza hauek aurre ikusten ziren:
-Murgiltze ereduen definizioa burutu.
-Ereduen aplikazioan eskuartu dezaketen ikastetxeetan aplikatu dadin sustatu.
-Murgiltze ereduak definitzeko batzordea eratu.
-Plataforma bat eratu.
-Interlokuzioak garatu.
-Adostasun politikoa bilatu.

¹ GUNEA 1998tik 2002.era garatutako hausnarketa foroa izan zen, Euskal Herriko hezkuntza eragile esanguratsuetako lagunak biltzen zituena, beti ere maila pertsonalean: LAB, ELA eta EILASekoak; Ikastolen Elkartekoak, Sortzen-Ikasbatuaz-ekoak eta publikako Guraso elkartekoak; Sarean-ekoak, IA-koak... Euskararen inguruko jardunaldiak antolatu zituen Bilbon, 1999ko maiatzaren 29an, hain zuzen ere. Xabier Iasak eta Lore Erriondok bertan aurkeztutako ponentzian aurki daiteke hemen azaltzen den aipua.

- Bestalde, Hizkuntza Eskubideen BEHATOKIAk 2.004.urtean Eurokarta betetzeko egin zituen gomendioen artean, irakaskuntzaren ingurukoa erduei erreferentzia zuzena egiten die:
-Gaur egun indarrean dagoen hizkuntz eredutako berrikus dadila eta, horren orde, EAEn indarrean dauden legeek aitortzen dituzten eskubide eta betebeharrak benetan ziurtatuko dituen irakaskuntza-eredua ezar dadila.
- 2.002. eta 2.003. urteetan zehar “ESKOLAK EUSKALDUNDU BEHAR DU” lelopean eginiko bi kanpainetan, ehunka lagun eta eragilek aipatu aldarrikapenarekiko beren atxikimendua adierazi zuten².

Hala ere, zoritxarrez, ereduaren politikak indarrean jarraitzen du. Frantses estatuak uko egiten dio ofizialtasunaren aldarrikapenari. Nafarroako Gobernua, I eta J eredu berriak bultzatzen ari da, ingelerari ospea emanez euskal irakaskuntzari bidea ixteko. Bizkaia, Gipuzkoa, Arabako Gobernua, azkenik, hizkuntza ereduak bermoldatzeaz hitz egiten du etengabe, baina ez du neurri eraginkorrik hartzen. Eta egoerak bere horretan jarraitzen duen urte bakoitzeko, milaka euskal ikaslek amaitzen dituzte beren ikasketak euskaldundu gabe, era horretan geure herriaren hizkuntzaren normalkuntza prozesuari oztopo berriak jarritz.

Premiazkoa da, beraz, sakoneko aldaketa baten aldeko presio soziala areagotzea. Honako agiri honen bidez, sakoneko aldaketa horren beharra argudiatu eta aldaketaren norabideak zein izan behar lukeen mahai gaineratu nahi dugu.

² Honako hau da, hitzez hitz, babestutako agiriak planteatzen dituen eskaerak:

-Egun Euskal Herrian hezkuntza sistema ezberdinen ondorioz, eskolak ez du haur eta gazte guztien euskararen ezagutza bermatzen. Egoera bat edo bestea izan, hau errealitate objektiboa da.

-Egoera honela mantentzeak, euskararen biziraupena kolokan jartzen du, honen etorkizuna ez baitago ziurtaturik.

-Euskara Euskal Herriko hizkuntza da eta berau jakitea euskal herritar orok dugun eskubidea da.

-Horren harira, eskolak, belaunaldi berri guztien euskararen jabetza bermatzeko ezinbesteko funtzioa betetzen du. Hau da, oinarriko hezkuntza bukatzean haur eta gazte guztiek euskara jakin behar dute.

-Horretarako, jada neurriak hartzea ezinbestekoa da eta egoera ezberdinak aztertuz, egun euskalduntzen ez duten irakaskuntza ereduak gaingitu eta euskaldunduko duen hezkuntza sistemaren alde eginez.

1. ERDAL IRAKASKUNTZA ETA EUSKAL IRAKASKUNTZA

Lehenik eta behin, hizkuntza politikaren garapen historikoari erreferentzia labur bat egin behar diogu.

a) Erdal irakaskuntzaren ezarpena

Estatu modernoak sortzearekin batera, hezkuntza sistema bateratuak sortu ziren. Estatu berri horiek hautatutako hizkuntza nagusia izan zen, aurrerantzean, irakaskuntzarako hizkuntza bakarra eta derrigorrezkoa. Hartara, hezkuntza sistemak estatuaren mugen barnean harrapatutako nazioak *erdalduntzeko* tresna izan ziren.

Lezioa ongi ikasteko aukera izan genuen euskaldunok, batez ere XIX. mendetik aurrera gaztelarazko hezkuntza sistema inposatu baitzigun sistematikoki Madrilak, lau herrialdetan; frantseserazkoa, berriz, Parisek, beste hiruetan. Gaztelera eta frantsesa ziren irakaskuntzarako hizkuntza bakarrak eta derrigorrezkoak. Eta eraztuna bezalako zigorren bidez³ euskara ikasgeletatik eta eskoletatik desagerrarazi egin zen.

b) Euskal irakaskuntza modernoaren sorrera

Euskal irakaskuntza herri ekimenez sortu zen, bereziki 60. eta 70. hamarkadetan. Aurretik esperientzia batzuk egonak ziren: 20. hamarkadan Bizkaiko auzo eskolak eta 30. hamarkadan Euzko Ikastola Batzarren sorrera. Gerra zibilak eta frankismoak saiakera horiekin amaitu egin zuten errotik. Hogeita hamar urte beranduago, ikastolak sortzen hasi ziren Euskal Herri osoan zehar.

- 64/65 ikasturtean, **596 ikasle** ari ziren ikastoletan.
- 1979.ean **172 ikastola** zeuden Euskal Herri guztian zehar.

Sare publikoan ere euskal irakaskuntza sartu egin zen. Herri ekimena erabakigarria izan zen kasu honetan ere. Alde batetik, hainbat eta hainbat ikastola publikatu zirelako, bereziki herri txikiak, 80. hamarkadan. Beste alde batetik, herritarrek eskola publiko eta euskalduna erdiesteko lan eskerga egin zutelako. Adierazgarria da, zentzu honetan, Iruñeko adibidea, non udal ikastola sortu baitzen 1978.ean.

c) Hezkuntza administrazio autonomikoak eta ereduaren politikaren sorrera

Horixe zen testuingurua, beraz, espainiar estatuak bere trantsizioa burutu zuenean. Euskal irakaskuntza errealitate sendoa zen ordurako, eta espainiar estatuak errealitate hori onartzea baino beste erremediorik ez zuen izan. Frantses estatuak, berriz, euskal irakaskuntza aintzat hartzeari uko egiten jarraitu zuen (eta jarraitzen du egun).

80. hamarkadan zehar bi hezkuntza administrazio autonomikoak eratu ziren: Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan, bata; Nafarroan, bestea. Eta beren hezkuntza politika diseinatzeari ekin zioten. Baina Catalunyaen bidetik jo eta ikasleriaren euskalduntzea bermatuko lukeen hezkuntza politika diseinatu beharrean, hizkuntza ereduaren politika finkatu zuten.

³ Euskaraz mintzatzen zen ikasleari eraztuna jartzen zion irakasleak, eta honek euskaraz aritzen zen ikaskideari pasatu behar zion. Egunaren amaieran eraztuna zuen ikaslea zigortzen zuen irakasleak. Joan Mari Torrealdai idatziriko *El Libro Negro del Euskera* izenekoan praktika hauen adibideak topa daitezke.

2. HIZKUNTZA EREDUEN POLITIKA ETA BERE ONDORIOAK

Azter dezagun, bada, hizkuntza ereduen politika: alde batetik, bere oinarri teorikoak; eta bestetik, bere gauzapean praktikoa. Kontutan hartu beharra dago ereduen politika ez dela berdina Euskal Herri osoan, gure herriak pairatzen duen zatiketa administratiboaren ondorioz. Alabaina, ezaugarri amankomun batzuk nabarmendu ditzakegu.

2.1 OINARRI TEORIKOAK

Hizkuntza ereduen politika justifikatzeko hainbat sasi-argudio entzutera ohituta gaude: “*eskola elebiduna bultzatu beharra dago*”, “*gutxinaka joan behar dugu*”, “*erabakitzeko aukera egon behar da*” e.a. Ikus dezagun zer dagoen horien atzean.

a) Ofizialtasun eza eta “*ofizialtasun ez ofiziala*”

Alde batetik, euskal lurraldearen zati handi batean euskararen ofizialtasuna ukatu egiten da, baita maila teorikoan ere:

- Batetik, Lapurdi, Behe Nafarroa eta Zuberoan. Frantses estatuak ofizialtasuna ukatzen dio euskal irakaskuntzari herrialde hauetan.
- Bestetik, Nafarroa Garaiko hainbat eskualdetan. Vascuenceren legearen eraginez, milaka nafarrei euskaraz ikasteko aukera ukatzen zaie.

Bestetik, Araban, Bizkaian, Gipuzkoan eta Nafarroa Garaiko beste eskualdeetan ofizialtasuna maila teorikoan onartzen bada ere⁴, praktikan irizpide hori urratu egiten da goitik behera. Horretarako, tranpa itzela egiten dute administrazioek, helburua eta bitartekoa apropos nahastuz. Eskola “elebidunak” (ereduetan oinarritutakoa: A, B, D ereduak), esaten dutenez, elebitasuna bermatzen du. Ordea, benetako ekuazioa honako hau da: eskola euskaldun elebakarrak (murgiltze sisteman oinarritutakoa) bermatzen du elebitasuna (emaitzetan).

b) Ustezko errealismoa

Ereduen politika eta oro har hizkuntza politikaren porrota justifikatzeko asmoz, ustezko errealismoa erabiltzen da: apurka-apurka egin beharra dago aurrera; 25 urte ez dira nahikoak hizkuntza normalizazio prozesu bat bururaino eramateko e.a. Eta badirudi sakoneko aldaketa aldarrikatzen dugunok utopikoak garela. Baina, mesedez! 25 urte ez direla nahikoak. Erritmo honetan, ezta 250 ere! Zenbat urte behar izan zituen Kubak bere populazioa alfabetatzeko? 3, 4, 5, 6? Euskal Herrian dauden giza eta ekonomia-baliabideekin, orain arte egindakoa baino ezin daitekeela egin sinestarazi nahi al digute?

Kontua da hizkuntza ereduak egoera normalizatu artean, behin behineko irtenbide gisa sortu zirela, duela hogeitun urte. Horrela *saldu* ziguten. Ordea, behin behinekoa zena iraunkortu nahi dute hezkuntza administrazioek, antza denez, hizkuntza ereduen egitasmoa *sine die* luzatuz.

c) Erabakitzeko eskubidearen aitzakian, erabakitzeko aukerarik ez

Ereduen politika erabakitzeko eskubidean oinarritzen omen da. Hau da, aukera egon beharra dago eredu bat edo beste hautatzeko. Alabaina, praktikan erabakitzeko aukera ukatzen zaie milaka lagunei. Izan ere, G, A edo B ereduan ikasi duen ikasle batek ez du aukerarik euskaraz edo erdaraz bizi nahi duen erabakitzeko, ez baitu gaitasunik euskaraz aritzeko.

⁴ EAeko Parlamentuak onartutako Euskararen Normalkuntzaren Legeak Eusko Jaurlaritza behartzen du “*ikasle orok bere derrigorrezko ikasketak amaitzerakoan euskaraz nahiz gaztelaniaz aritzeko behar adinbaterako ezauguera-maila praktikoa izan dezan baliabideak eratu etaneturri eragingarriak*” hartzera.

d) Aniztasunaren izenean

Hainbat eredu egoteak aniztasunaren adierazpidetzat defendatzen du hainbatek. Alabaina, anitzagoa da euskalduntzen duen eskola, euskalduntzen ez duena baino. Izan ere, euskalduntzen ez duen eskolak euskara arriskuan jartzen baitu. Eta horixe da, hain zuzen ere, globalizazioaren norabidea: hizkuntza bakarra, pentsamendu bakarra. Bestelako mundu bat posible dela aldarrikatzen dugunok, berriz, hizkuntza aberastasuna defendatzen dugu. Eta zentzu honetan euskararen berreskurapena euskaldunok bestelako mundu horri egin diezaiokegun ekarpenzat hartu beharra dago.

2.2 GAUZAPEN PRAKTIKOA

Aipatutako premisa horietan oinarrituta, lau hizkuntza eredu ditugu Euskal Herrian, eta aurki bi berri izango ditugu antza⁵.

- **G eta X ereduak.** Klase guztiak gazteleraz edo frantsesez. Ez dago euskarazko irakasgairik.

Uneotan **89.666** euskal ikasle ari da ikasten eredu honetan,

ikasleriaren %20,7⁶

- **A eredu.** Klase guztiak gazteleraz edo frantsesez. *Euskara* irakasgaia dago, lau ordu astean.

Uneotan **106.269** euskal ikasle ari da ikasten eredu honetan,

ikasleriaren %24,6

- **B eredu.** Hainbat klase erdaraz eta beste hainbat euskaraz.

Uneotan **72.419** euskal ikasle ari da ikasten eredu honetan,

ikasleriaren %16,7

- **D eredu.** Klase guztiak euskaraz. Gaztelera edo frantsesa irakasgaia dago, lau ordu astean.

Uneotan **164.375** euskal ikasle ari da ikasten eredu honetan,

ikasleriaren %38

Beraz, hizkuntza ereduaren politika martxan jarri eta bi hamarkadetara honako hau da errealitate gordina:

268.354 euskal ikasle euskalduntzen ez duten ereduetan ari da ikasten, ikasleria osoaren %62.

⁵ Izan ere, Nafar Gobernuak I eta J ereduak ezartzeko asmoa du. Bata nolabaiteko B eredu da (irakasgaiak ingeleraz eta gazteleraz), euskarazko irakasgairik gabe; besteak, berriz, horretaz gain euskara irakasgai bezala dauka.

⁶ Atal honetan azaltzen diren datuak Aztiker Soziologia Ikerkuntza Zentroak eginiko datu bilketan aurkitu daitezke, 3. orrialdean eta hurrengoetan.

- Izan ere, honezkero oso nabaria baita G, A eta B ereduak ez dutela euskalduntzen.

Soilik 164.375 euskal ikasle ari da D ereduan ikasten, ikasleria osoaren %38.

Eta hainbat adituk esan duten bezala, irakasgaiak euskaraz egoteak ez du esan nahi ikasleen euskalduntze integrala bermatua dagoenik. Zentzu honetan, euskalduntze arazoak somatu dira, bereziki euskararen presentzia soziala murriztagoa den eskualdeetan.

2.3 ONDORIOAK

a) Eskolak ez du euskalduntzen

Hizkuntza eskubideak urratzen dira, hots, ezin pertsonak bere herriko hizkuntza jakiteko eta ezagutzeko duen eskubide kolektibo eta indibiduala ez da betetzen. Ondorioz, euskararen biziraupena bera kolokan jartzen da. Izan ere, gaztelera eta frantsesa euskal herritar guztientzat derrigorrezko hizkuntzak dira eta jendearte esparru guztietan inposatzen zaizkigu. Euskara berriz, eskolan ez ezik jendearte ere bazterturik eta bigarren mailan dago eta egungo globalizazio fenomenoaren aurrean, neurriak hartzen ez baditugu bere etorkizuna ez da ziurtatzen. Eskolak ezinbesteko papera jokatzen du horretan.

b) Euskaldundu gabeko belaunaldiak ateratzen dira urtero

Egoera bere horretan mantentzen den bitartean, euskaldundu gabeko belaunaldiak ateratzen dira urtero eskoletatik.

- Hurrengo hamazortzi urteetan euskaldundu gabeko 268.354 euskal ikaslek amaituko dituzte beren ikasketak.
- Hau da, bataz beste 14.908 ikasle urtero.

Hezkuntza eskumenak eskuratu eta hogeit hamar urtera, ez al da gehiegitxo?

c) Euskaraz ikasteko aukera bera ukatu egiten da

Euskal Herriko hainbat eskualdetan euskaraz ikasteko aukera bera ukatu egiten da. Hau da, kontua ez da soilik eskualde horietako hainbat eta hainbat ikasle ez direla euskalduntzen, baizik eta horretaz gain euskaraz ikasteko oztopoak jartzen dituela administrazioak, sare publikoan D eredia debekatuz (Nafarroaren hegoaldean, Behe Nafarroan, Lapurdin, Zuberoan).

Honekin batera ez da ahaztu behar beste leku askotan, nahiz eta teorian D ereduko eskaintza egon, gero praktikan lekua falta delakoaren aitzakiaz, ikasle asko beste eredu batera pasatu behar direla edo beste herri batetara joan.⁷

d) Migrazio politika euskalduntzen ez duten ereduak indartzen ari da

Ereduen politika eta migrazio politika desegokia darabilte administrazioek. Nolako osagaiak, halako emaitza:

⁷ Esaterako, Bilboko Atxuri, La Vieja eta San Frantziskon; Ermuan eta Muskizen; Iruñeko Donibane auzoan. Herri eta auzo hauetan ikasleei D ereduan ikasteko eskubidea ukatzen zaie hainbat ikasleri.

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan eginiko estimazio batzuen arabera, bertan bizi diren etorkinen

- %68 A ereduan matrikulatzen da,
- %17,9 B ereduan
- eta %13,5 D ereduan.

Pentsatzekoa da beste lau herrialdeetan A eta G ereduetan matrikulatzen direnen portzentaia are eta handiagoa izango dela. Euskal herritar berrien hizkuntza eskubideak ere ukatu egiten dituzte administrazioek, beraz, eta euskal kulturaren murgil daitezkeen eragozten da.

e) Atzerapausoak eman daitezke

Hizkuntza politika estatiko eta kontserbadore batek atzerapausoak planteatzea errazten du. Eta atzerapausoak suposatu dezakete honako neurri hauek:

- Batetik, ingeles goiztiarraren ezarpena, bereziki euskararen berezko transmisioa bermatuta ez dagoen eskualdeetan.
- Bestetik, Nafarroako Gobernuak bultzatzen ari den I eta J ereduak.

3. EUSKARAREN EZAGUTZAREN BERMERAKO PROPOSAMENA

3.0 EGITURAZKO ALDAKETA BEHARREZKOA DA

Aurreko atalean azaldu bezala, arazoa egiturazkoa da, eta ondorioz aldaketak ere egiturazkoa behar du izan. Zentzu honetan:

a) D ereduaren ustezko igoera amaigabea ez da irtenbidea.

Lehenik eta behin, igoera hori ez delako amaigabea. Are eta gehiago, moteltzen ari da:

- **1991/92-1996/97** bost urteko epean **%52,2** egin zuen gora D ereduak eta **1997/98-2002/03** bost urteko epean, berriz, **%24,0**.
- Hemendik aurrera portzentai horrekin jarraituz gero (eta hori ez dago inondik inora bermatuta), **48 ikasturte beharko lirateke** (eta 2050/51 ikasturtera iritsi beharko genuke) euskal haur guztiek eredu horretan ikasteko⁸.
- Bitartean, B ereduak indarra hartu du eta migrazio politikak A eredia berpiztu dezake.

Bigarrenik, lehen esan bezala D ereduak berak hutsuneak dituelako, eta hainbat eskualdeetan ez delako gai belaunaldi berriak integralki euskalduntzeko.

Hirugarrenik, esan bezala urtero-urtero **14.908 herritarrek** amaitzen dituztelako beren ikasketak euskaldundu gabe. Ezin dugu beste hogeitaz urte itxaron.

b) A eta B eredu birmoldaketa ez da irtenbidea.

EAE-ko hezkuntza sailaren aldetik A edo/eta B eredia birmoldatzeko asmoak azaldu dira behin baino gehiagotan. Horrelako birmoldaketa batek ezer gutxirako balio du. Izan ere arazoa egiturazkoa baita, eta muinera joan ezean, partxeak jarri besterik ez genuke egingo.

c) Egiturazko aldaketa beharrezkoa da, beraz.

Eta gure ustez honako premisa hauetan oinarritu beharko litzateke:

1. Euskara eskubidea da.
2. Eskolaren helburua euskalduntzea da.
3. Helburu hori lortzeko tokiko testuingurua kontutan hartu beharra dago.
4. Bidea murgiltze eredia da.
5. Hau posible izateko, irakasleri euskaldun prestatua beharrezkoa da.
6. Euskaldundu ez diren herritarrei kalte ordaina zor zaie.

Jarraian premisa hauek laburki garatuko ditugu.

⁸ Atal honetako datuak Aztiker Soziologia Ikerguneak eginiko datu bilketan ikus daitezke, 10. orrialdean.

3.1 ABIAPUNTUA: EUSKARA, ESKUBIDEA.

Egiturezko aldaketa horrek eta honako ideia honetatik abiatu behar du: euskara eskubidea da. Izan ere, euskara Euskal Herriko berezko hizkuntza bakarra dela kontutan hartuz, oinarritzko eskubidea da euskara jakitea, eskolak eskubide horren bermerako tresna izan behar duelarik.

Hona hemen, zentzu honetan UNESCOk bultzatutako **Hizkuntza Eskubideen Adierazpen Unibertsaleko** (Bartzelona, 1996) 13. artikuluan azaltzen den ideia:

“Pertsona orok dauka bizi den lurraldeko hizkuntza propioa ezagutzeko eskubidea”

Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean ere aipamen bat egiten da:

“Gizaki orok dauka eskubide eta askatasun guztiak”, “arraza, kolore, sexu, hizkuntza, erlijio, politikazko zein bestelako iritzi, jatorri nazional edo sozial, egoera ekonomiko, jaiotza edo bestelako edozein kondizioengatik” inolako bereizketarik onartu gabe.

3.2 HELBURUA: EUSKALDUNTZEA

Euskara eskubidea baldin bada, beraz, **derrigorrezko hezkuntzaren helburuak euskalduntzea behar du izan**. Hau da, derrigorrezko ikasketak amaitzen dituen 16 urteko gazteak euskaraz jakin behar du eta euskaraz aritzeko gai izan behar du bizitzaren arlo guztietan.

3.3 TOKIAN TOKIKO TESTUINGURUA

Helburua berdina da Euskal Herri osoan (euskalduntzea), baina tokian tokiko errealitatea ezberdina da. Bi dira kontutan hartu beharreko aldagaiak:

- Batetik, **ikasle bakoitzaren hizkuntza ezagutza**. Batzuek euskara etxean bertan ikasi dute, beste batzuek, ordea, eskolan izango dute lehenengo harremana euskararekin.
- Bestetik, **ikastetxea dagoeneko herriko egoera soziolinguistikoa**. Euskal Herriko hainbat eskualdeetan euskarak presentzia handia dauka familian, kalean, tokiko komunikabidetan e.a. Beste batzuetan, ordea, nekez entzun daiteke euskara kaletik. Argi dago bigarren multzo honetako herrietan ahalegin handiagoak egin beharko direla ikasleak euskalduntzeko, gazteen arteko harremanari arreta berezia eskainiz.

3.4 BIDEA: MURGILTZE SISTEMA

Helburua zein den argi edukita, eta testuingurua kontutan hartuta, **euskalduntze integralerako planteamendua egin beharra dago tokian toki**. Noski, lehenik eta behin euskarak behar du izan irakaskuntzarako hizkuntza. Baina horrekin ez da aski. Esparru guztiak hartu behar dira aintzat:

- Klasean erabiltzen den hizkuntza-maila zaindu.
- Irakasleriaren prestakuntzari arreta eskaini.
- Kolektibo guztien arteko harremana aintzat hartu: ikasleak/ikasleak, ikasleak/irakasleak, gurasoak/irakasleak e.a.
- Hizkuntza paisaia.

- Eskola ordutik kanpoko harremanak.
- ...eta abar luze bat.

Badira hainbat esperientzia zentzu honetan, eta horiek aintzat hartu beharko genituzke.

3.5 BALIABIDEA: IRAKASLERIA

Aurretik azaldutako planteamendua bideragarria izateko, irakasle prestatuak izatea nahitaezkoa da. Zentzu honetan, **prestakuntzari eta etengabeko hobekuntzari arreta berezia eskaini behar zaio.**

Bestalde, oraindik ere erdal irakasleak, beraz elebakarrak eta euskara ez dakitenak, sortzen ari dira. Izan ere, irakasle eskolan erdal adarrek hortxe diraute. **Euskal Herrian kokaturik dauden irakasle eskoletan erdal adarren desagerpena beharrezkoa da,** euskarazko adarrekin irakasle euskaldunak, beraz, elebidunak sortuz.

3.6 EUSKALDUNDU EZ DIREN HERRITARRAK: ORDAINA

Aurretik azaldutako oinarriak erretroaktibitatez aplikatu beharra dago. Hau da, euskara eskubidea dela eta eskolak euskaldundu behar duela onartzen baldin badugu, orain arte eskolak euskaldundu ez dituen herritarrak kaltetutzat jo behar ditugu ezinbestean, eta ordaina zor zaiela onartu. Izan ere, egungo eskolatzea amaiturik, euskara ezagutu eta hitz egin ezinik atera diren pertsonak, hots, eskolak hizkuntza ikuspegitik kaltetu dituen herritarrek, euskara ezagutzeko egin beharreko ahaleginak handiak dira. Zentzu honetan, egoera hori bizi duten herritarrei, **helduen euskalduntze eta alfabetatze sarean, Euskal Herrian diren administrazioek doako euskalduntzea bermatzea eskatzen dugu.**